

## Mexikoko ekonomia sozial eta solidarioa indartzeko, hezkuntza proiektu handia bultzatuko du Lanki lankidetzaren ikertegiak

2014/12/11

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Lanki lankidetzaren ikertegiak hezkuntza proiektu handi bat bultzatuko dut Mexikon ekonomia sozial eta solidarioa indartzeko helburuarekin. Mexikoko Universidad Iberoamericana Puebla-rekin batera, Lanki gai horien gaineko formazioa eta laguntza tekniko emango ditu. Egitasmoa 2015 eta 2016 urteetan gauzatuko da.

Egitasmoa egingo da Mexikoko Tabasco, Chiapas eta Puebla estatuetan eta helburua da boteretzea eta laguntzea ekonomia sozial eta sozialean (ESS) lanean ari diren erakunde eta taldeak. Lankiren lana izango da eskaintzea ESSn gaineko formazio, laguntza tekniko eta babesa.

Proiektuaren asmoa da jauzi kualitatiboa ematea eta behin behineko kontua izan barik, sortzea Mexikon hezkuntza egitasmo egonkor bat lagunduko diena Universidad Iberoamerica Pueblaren bueltan lanean ari diren ekonomia sozial eta solidarioa xede duten taldeei euren bide propioa egiten. Hezkuntza proiektuak genero eta herri-pedagogiaren ikuspuntutik jorratuko dira.

Lankiren parte hartzea posible izan da Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza bati esker, hain zuzen ere, Garaperako Lankidetzaren Euskal Agentziak arlo honetan proiektuak burutzeko urtero ematen dituen diru-laguntza konpetitiboek esker.



Proiektua gauzatuko da Mexikoko Universidad Iberoamericana Pueblarekin batera.